



• Talde honetako hobetzen duten ikasleak beste taldetara pasa kurtsoan zehar?

- 1 Taldealk funtzionatzen badu, ondo badilhoa, zergatik aldaketaik eragin berarengan? (dakigunez, taldean elementu bat sartuz edo atereaz, sistema osoaren oreka astintzen dugu). Zertarako gure lana ere zaildu?
- 2 Neska-mutil hauek marginalak izateko arriskuan daude ("carne de cañón"). Integraturik sentitu behar dute hain burua, beren urbilioko kontestu osasunarrian lekuia irabazi ahal/behar dute eta talde honek aukera hori ematen die: taldekoak izan daitezke eta, taldearen bitartez, zentrokoak. Betidanik bizi duten kanporaketaren mehatzuaren alternatiriba egon daiteke hemen.

- 3 Taldea da, gaur egunean, subjektu bakoitzaz heusten/babesten/sostengatzzen ari dena,bere erronka, dinamika, ilusioa. Ikasle bakoitzak indar gutxi dauka eta urre askotako inertzi suntzitzalea. "Gu" da orain indartsuena. Babes tokia da babesik gabeko heavy hauentzako. Guztion arteko konplizitate-unea.

- 4 Ondo dihoan ikaslea taldetik ateratzen badugu, zaplasteko bat emango diegu taldeari eta norberari. Gauza berbera, beste taldeetatik gaizki dabilen norbait honera ekarriko bagenu. Azken finean mezua honelakoxea izango litzateke: talde hau zakarrontzia da, lehen bait lehen utzi behar den porroten aparkaderoa eta zarama guztia jaso behar duena. Beraz, kontrajariak izango lirateke egiten ari garen esfortzuak eta mugimendu honek konnotatuuko lukeena.

- 5 Berriz, taldea mantentzen badugu, baloratzen ari gara, errekonozitzen: aurerra ateratzen denak hemen izan du hobetzeko aukera eta hemengoa da, hemen du bere tokia.

- 6 Bestaldetik, ondo dihoan ikasle hori, kurtso erdian beste talde batera eramatzen badugu, egiten ari den esfortzuari, beste bat gehituko genioke: eginda dagoen beste taldean integratu, bere tokia egin... Kurtso hasieran zaila bada, erdian askoz zailago oraindik.

- 7 Azkenik, hobeto dihoazten ikasleak beharrezkoak dira taldea bultzatuko batitute (hasieran gertatu den bezala: 2-3 hasiziren ulertzzen eta lan-dinamikan sartzen. Hortik zabal daiteteke sistema osora). Gure eta lanaren aliatu importanteenak dira.

• Nola kalifikatu/baloratu talde honetako lana?

- 1 Zergatik sartu konparazioetan beste taldeekin? Talde honekiko erronka lan-martxan jartzea da eta zentzu honetan ezin da beste inorekin konparatu. Ikasle batek %100a ematen ari bada, ongi edo oso ongi ateratzen ari bada, horrek esaten diguna da lan-dinamika horretan jarraitzen badu, gaindituko duela. Baino 2. ebaluazioan lo gelditzen bada, suspendituko du. Hau da gakoa.

- 2 Bestaldetik, ikasle hauek kontestu zabalago batean sartuta daudela ezin dugu eta ezin diegu ukatu. Beraz, prebisio bat egin dezakegu: adibidez, aste santurako DBHko 1. maila egin behar dute (hau da helburu nagusia) eta, azkeneko trimestrerako 2.aren jarri beharko gara martxa galantarekin. Baino ez dugu 2. maila gaindituko, baizik eta aurreratu punttu jakin bateraino. Eta urrengo ikasturterako, talde honi geratu zaizkio 2.aren zati bat eta 3.a.

- 3 Hau dena notetan azaltzeko aspektu desberdinak balora daitzeke eta nahiz eta kalifikazioak jarri, eskatzen zaien errendimientuaren arabera, gero guttunak gehitu daitzeke elementu guzti hauek azalduz. Edozein kasutan, egiten dena egina ere, bai ikasleekin, bai beren gurasoekin honetaz aurrez aurretik argi hitz egin behar da haiek jakiteko non dauden eta zer nolako egokitzapenak egiten ari garen. Hau da, kalifikazioen zentzu ondo ulertzeko kontestu zehatzari begira (talde hau eta bere lana) eta zabalari begira ere (DBH).

- 4 Batez ere, ez dugu ahaztu behar ikasle hauek "desinflatzen" etengabeko arriskuan daudela eta komparaziotan galduko ditugula.

TALDEA(S)ak: Hazi / Aldaketa

- DBHko 2.a → 49 / 70
- 11 ikasle → 8 errepikatzaile
- Sortu berria

Ikastaroaren hasiera

TALDE DESARTIKULATUA

Antsietate nagusia:

- Maila oso bajua.
- Oinarri falta handia => beste taldean ezin erritmoa jarraitu
- Oso desmotibatuak
- Oso pasiboak
- Oso frustratuak
- Elkarrekin aurkitu zirenean:
 - deskolokea
 - a zer koadrila elkartu gaituzten!
 - gurasoen protesta: ttuntunen taldea da!
- (T)ekin/harreman onik ez
- Haien arteko tratu txarra: irainak...
- Edozein tarea txikia: denbora pila behar
- Lan-dinamika zaila: klasean eta etxeen ezer ez zuten egiten
- "Suspendituko dudanez, zertarako ikasi?"

Egitura Narzisistak

- Dilema melodrama: dena da ezer ez
- Frustrazioa jasanezina
- *2-3 lagun ulertzen hasi => Engantxatu
- *Klasean lanean hasten dira: edukinak mantzo baina eman daitezke
- *Etxeko lanak egiten dituzte!!!
- *"Beste gaietan 'oso ongi' ere atera nahi dut"

Teknikoa

- "De pegarse un tiro"
 - Lana:
 - oinarri-oinarritik hasi nintzen (prononbreak)
 - arauak: norberak ahal duena esan dezala, dena ongi dago
 - Harremanaren zehaztapena:
 - guztiaren arteko tratu ona
 - nik mimatuko zaituztet / zorrotza izango naiz
 - zuen erritmoa
 - zuen beharrak
 - agenda
 - etxeen lanak (nirekin errekreoa)
- Importanteak zarete
Onartzen zaituztet
BARNE LEGEA**
- Mugak / Lana
KANPO LEGEA**



Ikastaroaren Ekuadorrea

TALDE ARTIKULATUA EZEGONKORRA

Antsietate nagusia:

- Diferentzia/Norbera agertu behar
- Zakoneko lana
- Ez da "profezia autocumplidora" baizik eta prozesuen ezaugarria
- Lana/Prozesua = Maratoia --> Magia = norberaren zapuzketak
- 14 urteko inertziaren zama handia
- Adoleszenteak → "desinfle"/nekea

- ILUSIOA narzisista/beharrezkoa:**
- Talde-ilusioa: GU indartsua/magikoa
 - "Arte de lo Posible" => Autoestima uler dezaket/egin dezaket/ gai naiz

Tarearekin aliatuak
Kolaboratzaleak
edota Liderra

Zaindu

AGUANTAR el TIRÓN

Aurretik hasi

- Eutsi: klasean, irteeretan, patioan -> nekagarria
- Talde bat salbatzea oso zaila da

→ (S)ei so egin / bakoitz zaindu → Esfortzuak pena handia merezi izan du

Baliabide / Helburuak:
errealk/potenzialak / martxan jar daitezen/edukinak

→ (S)ak dauden abiapuntutik => Proiektu BIDERAGARRIA

→ Akatsa deskalifikatu ez → kontestualizatu/aktibitatea bultzatu

Ikastaroaren amaiera

TALDE ARTIKULATUA EGONKORRA

Antsietate nagusia:

Norberak abiadura eta maila desberdinaren bukatuko du.

110

70

40

60

100

120

30

Benetako despeguea / aldatak

- Luzatu diegun eskua
- batzuek hartzea erabaki dute
 - beste batzuek agian ez
- Guztiekin beste irtenbideak daudela ikusi dute, egunen batean, agian, erreferentzia hau, agian, erabiliko dute

GANSER/REVERIE gaitasuna: "Como si" / Capacidad de ensueño: imaginarles bien

Figueiredo

2001/XI/8